

Kiroljokoa bere hedatzea prestatzen ari da Euskadin kirol apustuak eskaintzeko

Eibar, 2008ko apirilaren 28a. Madrilen lehenengo kirol apustu lokalaren irekierak ikusmin handia sortu du, kirolaren inguruko aisialdi eta entretenimendu era honek suposatzen duen berritasuna dela eta. Euskadi izango da hurrengo erreferentzia, izan ere, kirol zaleek laster izango dute kirol jardunaldietan biziki parte hartzeko aukera, bere kirolari eta talde gogokoenen alde apustu eginez.

Kiroljokoa, Euskal Autonomi Erkidegoan apustuak ustiatzeko lizentzia duen Tele Apostuak enpresak duen marka, bere kaleratzea prestatzen ari da, apustu-etxeak ireki eta ostalaritza lokaletan apustu-makinak jarriz gauzatuko dena.

Bere ezarketaren lehen fasearen barruan, Kiroljokoak martxan ditu jadanik Irun, Gasteiz eta Eibarren kokatuko diren apustu-etxeen egokitzapen lanak, eta hemendik gutxira hasiko dira Tolosan, Santurtzin eta Barakaldon irekiko diren lokalen obrak.

Kiroljokoaren web orrialdea

Kiroljokoak www.kiroljokoa.com kaleratu du, enpresak aurkezten duen apustu eskaintzari buruzko informazioa eta kirol albisteak ematen dituen web orrialdea. Gainera, lan-poltsa atal bat dauka Kiroljokoak martxan jarri duen langile aukeraketa prozesuan parte hartzeko interesa dutenentzat.

Informazio gehiago:

Maribel San José

Marketing eta Komunikazio arduraduna

943 257 700 - 688 88 17 09

msanjose@kiroljokoa.com